

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### Alkatearen dekretua, bere eginkizunak eskuordetzeko

Alkatearen uztailaren 18ko 147/2019 Dekretuaren bidez, hitzez hitz jasotzen den xedapen zati hau onartu zen:

Xedatzen dut

Lehenengoa. Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 23.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Manuel Muñoz Morentín lehen alkateordearengan uztea alkatearen eginkizun guztiak 2019ko abuztuaren 2tik 12ra bitartean, biak barne, alkatea oporretan egongo baita.

Bigarrena. Eskuordetzearen barne daude zuzentzeko eta kudeatzeko ahalmena, bai eta kasuan kasuko administrazio prozedurak ebaztekoa ere, hartu beharreko administrazio egintzak hartuta.

Hirugarrena. Organo eskuordeak, gerora, eta betiere eskatzen zaionean, aipatutako epean egindako kudeaketaren eta hartutako xedapenen berri eman beharko dio alkateari, eta erabaki garrantzitsuak izanez gero, aldez aurretik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duenak, 115. artikuluan xedatzen duenez.

Laugarrena. Dekretu honen bidez ematen den eskuordetzeak organo eskuordearen onespena behar du eraginkorra izan dadin, eta isilbidez onetsi dela ulertuko da baldin eta alkateari ez bazaio eskuordetzearen kontrako adierazpenik idatziz aurkezten ebazpen hau jakinarazten den egunaren hurrengotik hasi eta hiru egun balioduneko epearen barruan.

Bosgarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta horren berri emango zaio udalbatzari egiten duen lehenengo bilkuran.

Seigarrena. Ebazpen honetan berariaz aurreikusi ez den guztian zuzenean aplikatuko dira arau hauetan xedatutakoak: apirilaren 2ko 7/1985 Legean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan, toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren arautegia onartzen duenean, eskuordetzei buruz ezarritakoei dagokienez.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da, Toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduak 44.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz (2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa).

Santikurutze Kanpezu, 2019ko uztailaren 18a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*